

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Martin Ugalde kultur parkea 20140 Andoain

Tzat...?

Erramun Gerrikagoitia • LEKEITIO

Dudatan egon naiz norentzat izkiriatu, edo generalki tzat edozein interesatu edo tzat konkretuki Patxi Petrirena. Baina nola publikoki izkiriatzen dena den guzientzat' izan bedi nire hau ere lukeenarentzat nahi irakurri ondokoa, izan dadin ere hori nomahi.

Baina ezin dudana ulertu da zergatik eta zertara dathorren Patxi Petrirenak erraiten duena, eta diona konkretuki, parallelismoa eginik Bereterretx-en khantore zuberotarrak, ezen «Ez nuen (nian) uste erraiten zuela (ziala) aitoren (aitonen) semek gezurrik». ¿Zetara dathor aiphu hori eta bertze horrelatsukoa? ¿Zer erran nahi du klarki?, Patxi

explika diezagula explizituki eta ez ibili aieruka.

¿Ala nahi zukeen Patxi erran, ezen «Munitibarren ba da gizon bat deitzen zaio Erramun, hitzak ederrak bihotza faltso, sekula ez zaio faltako, egin dituen izkiribuak berari zaizko damuko»? Nehor diffamatu barik, hobe luke P. Petrirenak ere, nola edozeinek, bere opinione eta aburu lexikal, orthographiko, grammatikal edo finean linguistikoak agertu, edo nahiago balu bertzerenak irmo eta radi-kalki rebattitu.

¿Ala othe da «basta ya / aski da» bat erraiteko aldarria duela egin nahi' vetoa eta prohibicionea ezarri behar litzaidake-ela niri Erramuni, edo bertze norbaiti, diru publikoz ere subventzionatzen diren orriotan? Interesantea litzateke (tzat ni,

behintzat) aklaratione zindo bat egin balielagu Patxi Petrirena herrikide eta euskalzalekideak.

Bakio eta Galipota


Iñaki Martiartu • BAKIO

Prestige-k isuritako galipota dala eta, egunokaz, eta zoritxarrez, behin eta barriz agertuten izan da gure herria hedabideetan. Egia da, galipot ugari be ugari batu da gure herriko haretzan (hondartzan), hatxetako oraindinokarren batu barik badago be. Lehengo aldian, baina, Bakioko «Peñas Rojas» dalako inguruan be galipota batu ei zala aitatu euskuen bai EITB-k, bai EUSKALDUNON EGUNKARIA-k, eta baita beste

batzuek be, agoz zein idatziz aitatu be. Jakin beie, bada, kazetariok izen hori ez dana Bakioko lekuizena. Izen arrotza da, Bilboko udatiar erdaldu batzuk ekarri eta eurak baino ez erabilia.

Jakin beie be kazetariok inguru haretako izena, bakarra, betiko eta benetako, Axkada dana. Axkada eta kitu! Jakin beie kazetariok hori, gero eurak gure herriko izenak behar dan lez erabili daiezan, eta ez daien lekuizen arrotzik edota gure herriagaz zerikusirik ez dauken kanpotar batzuk asmaukorik erabili. Inguruko izenak jakin gura izan ezker, itaundu herriko jenteari, aboriginakana jo. Badaezpadan be, Bakioko haretzearen izena AREAGA da. Izan be, Bakioko toponimia osoa euskaldun-euskalduna da. Bakotxari berea.

montxo



galdeiozu... ?



Noiz arte jasango ditugu Kantauri itsasoan 'Prestige' ontziaren ondorioak?

Alberto Elustondo (Donostia)

JUANTXO LOPEZ URALDE

Greenpeaceko Espainiako arduraduna

Oraindik 40.000 tona inguru fuel dago *Prestige* ontzian eta itsasoan. Ontzi bareneko fuela ponpatu eta aterako balute, denbora gutxi barru konponduko litzateke arazoa. Hori egin ezean, beste bost edo hamar urte jasan beharko ditugu ondorioak. Erabaki baten edo bestearen artean dago dena; baina orain artekoa ikusita, beldur naiz agintariek berriro oker jokatuiko duten.

Otsailaren 25etik aurrera **Pako Aristi • Idazlea** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako. galdeiozu@egunkaria.com

hirusta



Fredi Paia

Argi izpi bat

Euskal sindikatuek beste irakaspen bat eman diote euskal gizarteari (edo aurrekoa berretsi). Herri honetan beste inork lortzerik izan ez duena lortu dute, berriro ere beren arteko harremanak batzen dituzten puntuen gainean eraikitzea. Politikariek kontrakoa egiten jarraitzen dute bitartean. Beren harremana (edo harreman eza) bereizten dituzten puntuetan oinarrituz. Ikuspegi sozialetik begirata, ezinbesteko urrats derizot langileen ekintza batasunari. Pribatizazioak eta enplegu politika aktibo deritzen eskubide galera etengabeak mendeetako langile borrokaren emaitzak atoan desagertzeaz mintzo dira. Patronalak eta agintari politikoei abizen berberak dituzten garai hauetan, ordua da langilea klase kontzientzia berreskuratu eta bere borrokaren emaitzen potentzialitateaz ohar dadin. Ez bere bizitza kalitatea aldatzeko soilik, baizik eta eraldaketa soziala erdiesteko.

Hala ere, ezin dugu ahaztu gaitz sozialek sendabide politikoa dutela sarri, beti ez bada. Hain zuzen ere, interbentzionismo ezaren ondorioek neoliberalen *darwinismo* sozialera garamatzate beste inolako aukerarik gabe, oihanera alegia. Ondo dakigu, gainera, nor den arrain txikia, langilea (eta hirugarren munduko herriak).

Beraz, elkarlana arlo politikora zabaltzea derrigorrezkoa dute, ekintza batasunak eraginkortasun osoz funtziona dezan. Euskal gatazkaren konponketaren bila daukaten erantzukizuna (guziok daukaguna) alboratu gabe.

Egia esateko, *baldintza egokien* mamuak izutzen nau. Elkarlan politikorako politikoen filosofia aplikatzeak porrota ekarriko duelako. Mendia gugana etortzearen zain bagaude, gureak egin du. Geuk joan behar dugu mendirantz, baldintzak ez dira berez sortzen. Geuk sortu behar ditugu.